EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Enkarterriko Eskualdeko Plan Estrategikoa 2030

2021eko ekitaldiko memoria

Laburpen exekutiboa

Alonsotegi udala ayuntamiento · Artzentalesko Udala · balmaseda Ayuntamiento Udala · Galdames · Concejo de Güeñes udalbatza · Karrantza · Lanestosa · Sopuerta · Turtzioz · Zalla Ayuntamiento Udala

ENKARTERRI	JARDUKETAK
EK1 Enkarterrirako trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua hobetzea	❖ L4 proiektuaren kanpaina geoteknikoa ❖ Eraikuntza-proiektua idaztea (2022ko amaiera) ❖ Merkantzien seinaleztapena (Irauregiko tartea. Arizko aginte-postua) ❖ Irauregiko seinaleztapena eta elektrifikazioa egokitzea ❖ RVPV 2021 azterlana (Balmaseda Irauregiko tartea) ❖ Irauregi-Lutxana bidea berritzea
EK2 Enkarterriko aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa **1. Aktibo kulturalen interkonexioa** **2. Aktibo turistikoen interkonexioa**	❖ Zallako artisten gunea. Artisten gunea, Guata zelulosa-fabrikan ❖ Autokarabanentzako aparkalekuen, sustapen-materialen eta hedapen-tresnen eskaintza handitzea ❖ Errealitate birtual areagotua ❖ Enkarterriko turismo-eskaintza guztia biltzen duen kudeaketa-plataforma digitala ❖ Mugikortasun Jasangarriaren Proiektua ❖ Enkarterri Bike &Walking ❖ Plan estrategikoa ekitaldi berezietarako lurralde gisa garatzea
EK3 Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: LH garatzea eta laneratzea	❖ San Viator (hainbat jarduketa) ❖ Maristak, Zalla (hainbat jarduketa)
EK4 Eskualdea digitalizatzeko banda zabala hedatzea	❖ 5G hedatzeko EK4 proiektuaren diseinua, plangintza eta gauzatzearen jarraipena (proiektuaren kudeaketa) ❖ Enkarterrialdeko erakundeentzako dirulaguntza programa “5G erabilera-kasuetarako” (eskarirako laguntzak) ❖ Telekomunikazio-operadoreek 5G sareak hedatu eta behar diren azpiegiturak eraiki ahal izateko dirulaguntzak (eskaintza eta/edo inbertsio publikorako laguntzak)
EK5 Enpresa-guneak sortzea	❖ Elkartegirako lursailak erostea ❖ Elkartegia eraikitzea ❖ Güeñesen eraikina erostea ❖ Güeñesko eraikina birgaitzea
EK6 Enkarterrin bioekonomia sustatzea	❖ Ehunak biderkatzeko oinarri teknologikoko enpresa bat garatzea (enbriogenesia eta organogenesia) ❖ Ardi latxaren artiletik eratorritako ehunen eta bestelako produktuen enpresa bat garatzea

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

ENKARTERRI	JARDUKETAK
EK1 Enkarterrirako trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua hobetzea	❖ Malabrigo – Traslaviña BI-630 obra ❖ La Herrera – Malabrigo BI-630 obra ❖ Traslaviña – Trutzioz BI-630 obra ❖ La Escrita – El Callejo BI-630 obra ❖ El Callejo – La Cadena BI-630 obra
EK2 Enkarterriko aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa **1. Aktibo kulturalen interkonexioa** **2. Aktibo turistikoen interkonexioa**	❖ Jarduketak La Encartadan ❖ Hobekuntzak Karpinean (AZPIEGITURA SAILA) ❖ Turismoa sustatzeko ekitaldia Enkarterrin ❖ Kirol anitzeko txapelketa.
EK3 Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: LH garatzea eta laneratzea	❖ Eskola-absentismoa murrizteko programa
EK4 Eskualdea digitalizatzeko banda zabala hedatzea	❖ Eremu zuriak, banda zabala hedatzea
EK5 Enpresa-guneak sortzea	❖ Elkartegirako lursailak erostea ❖ Elkartegia eraikitzea
EK6 Enkarterrin bioekonomia sustatzea	❖ Basque Desing Center zentroari bioekonomiarekin lotutako jardueretan laguntzea

EK 1. Barneko eta kanpoko mugikortasuna hobetzea, bereziki trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua

A) EUSKO JAURLARITZA. Trenbide-azpiegiturak hobetzea. Jarduketak

AZPIEGITURA ETA GARRAIO SAILBURUORDETZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK1.1	L4 proiektuaren kanpaina geoteknikoa	Lizitatzea, adjudikatzea, 1. fasea, lanak hastea 2021eko abenduan	1. faseko lanekin jarraitzea.	Jarduketa horren zenbatekoa aurreikusitako 250.000tik 75.000ra murriztuko da. Gainerako zatia proiektura eskualdatzen da.
EK1.2	Eraikuntza-proiektua idaztea (2022ko amaiera)	Partaidetza-prozesua egitea, informazio-azterlana idazten amaitzea.	Informazio-azterlana onestea, jendaurrean jartzea, lizitatzea, adjudikatzea eta proiektua idazteko lanak hastea	Jarduketa horren % 60 ziur asko 2023an egingo da.
EK1.3	Merkantzien seinaleztapena (Irauregiko tartea. Arizko aginte-postua)	Lizitatzea, adjudikatzea eta lanak hastea	Jarduketa amaitzea	
EK1.4	Irauregiko seinaleztapena eta elektrifikazioa egokitzea	Eraikuntza-proiektua idaztea	Lizitatzea, adjudikatzea eta lanak hastea, % 35eko aurreikuspena 2022an	Jarduketa horren % 65 ziur asko 2023an egingo da.
EK1.5	RVPV 2021 azterlana (Balmaseda Irauregiko tartea)	Lizitatzea, adjudikatzea eta lanak hastea	Jarduketa amaitzea	
EK1.6	Irauregi-Lutxana bidea berritzea	Proiektua idazteko lizitazioa	Lizitatzea, adjudikatzea eta lanak hastea, % 35eko aurreikuspena 2022an	Egikaritzea 2023an

B) BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Bide-azpiegiturak hobetzea. Jarduketak

BFA. AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK1.7	Malabrigo – Traslaviña BI-630	Jarduketa amaitzea		Trazadurak, bide-zoruak, bide-segurtasuneko egoerak, sarbideak eta konektibitatea hobetzea.
EK1.8	La Herrera – Malabrigo BI-630	Ingurumen-inpaktuaren adierazpena lortzea	Kontratazioa eta obra 2022. urtean hasteko aurreikuspena	Trazadurak, bide-zoruak, bide-segurtasuneko egoerak, sarbideak eta konektibitatea hobetzea. Azpiegitura bat eraikitzea, BI-630 eta BI-636 errepideen arteko lotura optimizatzeko, Kadaguako haranaren gainetik pasatuz eta BI-636 errepidearekin lotuz, Balmaseda eta Zallako hiri-zeharbideak zeharkatu gabe, Kadaguako korridorearen erdilotunea (BI-636) (Zallako La Herrera auzoan) eta BI-630 errepidea (Malabrigo parean) zuzenean lotuta.x

B) BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

BFA. AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK1.9	La Escrita – El Callejo BI-630	Jarduketa-plana definitzea	Behin-behineko onespena eta jendaurreko informazioa Ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatzea	Trazadurak, bide-zoruak, bide-segurtasuneko egoerak, sarbideak eta konektibitatea hobetzea. EPEaren indarraldian gauzatzeko aurreikuspena
EK1.10	El Callejo – La Cadena BI-630	Jarduketa-plana definitzea	Behin-behineko onespena eta jendaurreko informazioa Ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatzea	Trazadurak, bide-zoruak, bide-segurtasuneko egoerak, sarbideak eta konektibitatea hobetzea. EPEaren indarraldian gauzatzeko aurreikuspena
EK1.11	Traslaviña – Turtzioz BI-630	Jarduketa-plana definitzea		Trazadurak, bide-zoruak, bide-segurtasuneko egoerak, sarbideak eta konektibitatea hobetzea. EPEaren indarraldian gauzatzeko aurreikuspena

Proiektu eragilearen aurrerapenaren deskribapena
EUSKO JAURLARITZA

A) Aktibo turistikoak eta kulturalak sustatzeko eta interkonektatzeko jarduketak

2021ean aurrera egin da, turismoaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak eta BFAk gidatutako ekintza turistikoen definizioan, lizitazioan eta adjudikazioan, Enkartur eskualdeko kudeaketa turistikoko erakundearen laguntzarekin.

1.A) Turismo Sailburuordetza: Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuordetzak funtsak transferitu dizkio Enkarturri, definitutako ekintzen lizitazioen eta adjudikazioen arduradun gisa, 2021ean eta 2022an gauza daitezen.
(Definitutako ekintzak: autokarabanen aparkalekua, errealitate birtual areagotua, turismo-eskaintza biltzen duen plataforma, mugikortasun jasangarria, Enkarterri Bike-Walking eta ekitaldi bereziak)

2.A) Kultura Sailburuordetza: Aurrera egin da Zallako udalerrian kokatuko den eskualderako sormen- eta kultura-industrien gune berri bat diseinatzen eta sortzen eta jarduera hori hartuko duen higiezin bat erosten.

1.A) EUSKO JAURLARITZA. Turismo-eskaintza sustatzea

TURISMO SAILBURUORDETZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK2.1	Autokarabanentzako aparkalekuak	Lizitatzea, adjudikatzea eta lanak hastea.	Proiektuak idaztea eta obrak gauzatzea Autokarabanen eremuak sustatzea (lizitazioa)	Autokarabanen 5 eremu egingo dira Balmasedan, Lanestosan, Artzentalesen, Sopuertan eta Karrantzan
EK2.2	Errealitate birtual areagotua	Lizitatzea, adjudikatzea eta lanak hastea	Jarduketa amaitzea	Errealitate birtualeko aplikazio bat garatzea kastroan, Bolunburuko monumentu-multzoan eta Balmasedako gazteluko muinoan. Errealitate birtuala sustatzea, eskolak, hurbileko familiak eta hiri handietako jendea erakartzeko.
EK2.3	Enkarterriko turismo-eskaintza biltzen duen plataforma birtuala	Lizitatzea, adjudikatzea eta lanak hastea	Plataforma bat garatzea, eta, horretarako, zerbitzu turistikoak eta eduki orokorrak jasoko dituen bilaketa-motor bat eraikitzea. Prestakuntza tresna digitaletan, marketinean eta turismoaren eraldaketan. Turismo-sektoreari zuzendutako aurrez aurreko eta online saioak egongo dira	Enkarterriko turismoa sustatzeko kanalak modernizatzeko eta eguneratzeko beharra

1.A) EUSKO JAURLARITZA. Turismo-eskaintza sustatzea

TURISMO SAILBURUORDETZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK2.4	Mugikortasun jasangarriaren proiektua.	Lizitatzea, adjudikatzea eta lanak hastea	Ibilgailu elektrikoentzako kargaguneak instalatzeko espazioak identifikatzea eta horiek instalatzea. Erabilgarritasun-aplikazioa eta bizikleta-parkea	Mugikortasun turistikoa hobetzea, jasangarritasun-irizpideetan oinarrituta.
EK2.5	Enkarterri Bike Walking	Lizitatzea, adjudikatzea eta lanak hastea	Ibilbideak identifikatzea eta sortzea Bizikletak konpontzeko eta garbitzeko geltokiak instalatzea *Bike-walking*a sustatzea. Zikloturismoari eta mendi-ibiliei buruzko webgune espezifikoa sortzea eta kudeatzea. Fluxuen monitarizazioa	Enkarterrin sare zikloturistiko bat garatzea, *Bike-Walking* praktikatzeko azpiegitura egokiekin.
EK2.6	Ekitaldi bereziak garatzea (plan estrategikoa)	Pozalagua Jaialdia eta Gabonetako merkatuak		Ekintza hori jarduketa-planetik ezabatu da eta garatzeko konplexutasun-espezialitateko partida berresleitu da.

2.A) Kultura. EUSKO JAURLARITZA. Sormen- eta kultura-industriak

KULTURA SAILBURUORDETZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK2.7	“Zallako Artisten Gunea” proiektua	Guata industria-nabea erostea Proiektua idaztea. Kultiba aholkularitza-enpresa kontratatzea	-. Espazioa egokitzea. -. Kudeaketa-eredua definitzea -. Eraikinaren hornitzea.	-. ARTISTEN GUNEA (ZALLA): Zallako zelulosa-fabrika zaharrean sormen- eta kultura-industrien gune berri bat sortzea -. Kudeaketa-eredu bat definitzea eta jarduketa eskualdearentzako aukera-proiektu gisa kokatzea (Aranguren, Zalla, Eskualdea, EAE)

Proiektu eragilearen aurrerapenaren deskribapena
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

B) Turismoa eta kultura sustatzeko jarduketak

- BFAko Turismo, Kultura eta Azpiegitura Zuzendaritzak ekintzak egiten ari dira Enkarterri eskualdea helmuga turistiko gisa garatzeko: naturako kirolari lotutako *bikefriendly* turismoan duen posizionamendua sendotzen ari dira, La Encartada museoari balioa ematen, eta Karpineko eta Terrasaurorako sarbideen hobekuntzak eta kudeaketaren bideragarritasun-azterketa sustatzen.

B) BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Hasierako aurrerapenak. Planean jasotako proiektuaren kontzeptualizazioaren garapena

BFA. KULTURA ETA ONDARE ZUZENDARITZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK2.8	Jarduketak La Encartadan	-. 2021eko jarduera-programa gauzatzea eta 2022ko jarduera-programa zehaztea -. Teilatua berritzeko proiektua idaztea -. Kanala hobetzeko eta turbina martxan jartzeko memoria baloratua idaztea -. 4 makina berreskuratzea.	-. 2022ko jardueren programa gauzatzea (erakustaldiak, aldi baterako erakusketa, Encartada Moda lehiaketa) eta 2023ko jarduerak definitzea -. Teilatua berritzeko proiektua gauzatzea -. Kanala hobetzeko eta turbina martxan jartzeko proiektua idaztea eta gauzatzea	-. Ondarea berreskuratzea (makinen berreskuratze mekanikoa) -. Inbertsioa (batez ere teilatua, kanala hobetzeko obrak eta turbina) -. Mantentze-lanak, jendearentzako arreta eta programa.

B) BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Hasierako aurrerapenak. Planean jasotako proiektuaren kontzeptualizazioaren garapena

BFA. AZPIEGITUREN ZUZENDARITZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK2.9	Hobekuntzak Karpinean	Terrasauroa hobetzeko proiektuaren definitzea	Terrasauroa hobetzeko lizitazioa eta obrak mankomunitatetik Azpiegiturak enpresak 400.000 euroko partida du parkerako sarbideak hobetzeko.	BBK Fundazioak 63.000 euroko dirulaguntza ematen du erreserba naturala dinamizatzeko. Mankomunitatearen bidez bideragarritasun-azterketa bat egiten ari dira.

BFA. TURISMO ZUZENDARITZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK2.10	Turismoa sustatzeko ekitaldia Enkarterrin	Turismoa eta tokiko produktuak sustatzeko azoka Katalunian		Turismoa sustatzeko Estatuko lehentasunezko merkatua
EK2.11	Kirol anitzeko Europako txapelketa	Kirol anitzeko txapelketa prestatzeko kudeaketak	Kirol anitzeko txapelketa egitea Bizkaian; eragina du Enkarterrin	Turismoari eta naturari lotutako posizionamendua sendotzea

Proiektu eragilearen aurrerapenaren deskribapena
EUSKO JAURLARITZA

A) Lanbide Heziketa garatzea eta laneratzea

- Lanbide Heziketako Sailburuordetzak 3.000.000 euro transferitu dizkie Sopuertako San Viator eta Zallako Maristak lanbide-heziketako ikastetxeei ikasleak teknologiara, energiara eta bioekonomiara bideratutako prestakuntza-adar berrietan gaitzeko gelak eta tailerrak ezartzeko.
- 2022-2023 ikasturterako, San Viator ikastetxeak Lanbide Heziketako Sailburuordetzari **bi heziketa-ziklo abian jartzeko** eskatu dio: **bata zahartze aktibo eta osasungarriarekin lerrokatua, eta bestea robotikako eta 3D inprimaketako ekipamenduekin lerrokatua** (mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta emateko teknikaria eta fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko teknikaria). Horrez gain, **ibilgailu hibridoen eta elektrikoen mantentze-lanetan espezializatzeko ikastaro bat** ere gehitzeko eskatu dio, 4.0 elektromugikortasun-tailerrarekin lerrokatua.
- Osagarri gisa, gune horiek jarduneko langileak laneratzeko eta birkualifikatzeko programak garatzeko erabiliko dira.
- San Viator ikastetxeak baliabide propioak erabili ditu eraikin bat birmoldatu eta beste bat eraikitzeko, lantegi sortu berriak bertan jartze aldera.
- Instalazio eta ekipamendu guztiak zabalik egongo dira ekintzaileentzat, enpresentzat eta erakundeentzat, eta horri esker:
    - Eskualdean irakaskuntza arautuaren prestakuntza-eskaintza areagotuko da.
    - Enplegurako prestakuntzaren arloko prestakuntza eskainiko da.
    - Ekintzailetza bultzatuko da.
    - Enpresekin lankidetza-proiektuak eta berrikuntza-proiektuak garatuko dira.
    - Eta Enkarterriko pertsonen laneratzea biziki hobetuko da.

Proiektu eragilearen aurrerapenaren deskribapena
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

B) Babesgabetasun-egoeren prebentzioa Enkarterrin eskola-absentismoko tasa handiak dituzten eremuetan

2021ean zehar, proiektu hori aztertzeko fasean egon da, eta 2022an jarduketa hauek burutzea aurreikusi da:

- ✓ Erakundearteko lantalde/batzorde bat ezartzea, proiektuan parte hartzen duten erakundeekin proiektua garatzeko.
- ✓ Hautatutako eremuan edo udalerrian eskola-absentismoari buruzko datuak aztertzea, Osabide Hezkuntzarako Partzuergoarekin lankidetzan, babesgabetasuneko funtsezko faktoreak identifikatzeko.
- ✓ Emaitzak baloratzea eta zaurgarritasun eta arrisku handieneko profilak identifikatzea.
- ✓ Prebentzioko eta esku hartzeko neurri espezifikoak definitzea eta horien inguruko akordioa egitea.
- ✓ Proiektuaren jarraipena eta datuen monitorizazioa.

Kolektibo horiei arreta ematen dieten erakundeen arteko etengabeko elkarrizketa artikulatu nahi da:

- ✓ Proiektuaren garapen-eremuko udalerrietako/mankomunitateetako oinarrizko gizarte-zerbitzuak.
- ✓ Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzua
- ✓ Hezkuntza, Osabide Hezkuntzarako Partzuergoaren bidez

Agente laguntzaileak: EJ LH+Lanbide, BFA 3R programa (Enplegua, Inklusioa eta Berdintasuna), eskualdeko LHko zentroak...

A) EUSKO JAURLARITZA

LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDETZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK3.1	San Viator Tekn. Birtualizazioa eta Cloud sistemak (Sopuerta)	Ekipamendua erostea	Ikasgela muntatzea. Proiektua gauzatzea. Prestakuntza Enpresei gela berriak ezagutaraztea	San Viatorrek eraikin bat birmoldatuko du baliabide propioekin, espazioa egokitzeko
EK3.2	San Viator. Ziber-segurtasun Laborategia sortzea (Sopuerta)	Ekipamendua erostea	Ikasgela muntatzea.	San Viatorrek eraikin bat birmoldatuko du baliabide propioekin, espazioa egokitzeko
EK3.3	San Viator. Elektromugikortasuneko tailer adimenduna	Ekipamendua erostea	Ikasgela muntatzea.	San Viatorren eraikin berri bat eraikitzea baliabide propioekin
EK3.4	San Viator. 3D inprimaketa laborategia	Ekipamendua erostea	Ikasgela muntatzea.	San Viatorren eraikin berri bat eraikitzea baliabide propioekin
EK3.5	San Viator. Robotika autonomoa	-		San Viatorren eraikin berri bat eraikitzea baliabide propioekin
EK3.6	San Viator. Osasun pertsonalizatuko eta zahartze osasungarriko ingurune berriak. Etxebizitza adimenduna	Ekipamendua erostea	Ikasgela muntatzea.	San Viatorrek eraikin bat birmoldatuko du baliabide propioekin, espazioa egokitzeko

A) EUSKO JAURLARITZA

LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDETZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK3.7	San Viator. LHko ikasleei ekintzailetza-proiektuetarako laguntza ematea	Enbriogenesi somatikoko ekipamendu eta teknologia duen inkubagailua, eskualdeko ekintzaileen eskura jartzeko	Inkubagailua bioekonomiaren esparruan martxan jartzea eta hornitzea. Ikasle ohien proiektu ekintzaileak bultzatzea.	San Viatorren eraikin berri bat eraikitzea baliabide propioekin. EPEan deskribatutako eremuetan enpresak sortzeko ekintzailetza-proiektuak
EK3.8	San Viator. Prestakuntza-programen birkualifikazioa	LHko ikasleentzako prestakuntza- eta ekintzailetza-programetarako zelula-hazkuntzarako ekipamendua eta teknologia eskuratzea.		
EK3.9	San Viator. Nekazaritzako elikagaien prozesu adimendunak digitalizatzeko inguruneak	-		San Viatorren eraikin berri bat eraikitzea baliabide propioekin.
EK3.10.	San Viator. Fabrikazio aurreraturako 4.0 tailer adimenduna	Ekipamendua erostea	Ikasgela muntatzea.	Ekipamendua lehendik dagoen tailerrean ipiniko dute
EK3.11	Maristak (ZALLA). Energia-efizientziarako 4.0 tailerra	Ekipamendua erostea	Ikasgela muntatzea.	Maristak ikastetxea espazioa egokitzeko zain dago.
EK3.12	Maristak. LHko ikasleei ekintzailetza-proiektuetarako laguntza ematea	Ekipamendua erostea	Inkubagailua martxan jartzea eta hornitzea	Maristak ikastetxea espazioa egokitzeko zain dago.
EK3.13	Maristak. Prestakuntza-programen birkualifikazioa	Ekipamendua erostea		Maristak ikastetxea espazioa egokitzeko zain dago.

B) BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

BFA. GIZARTE EKINTZAKO ZUZENDARITZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK3.14	Eskola-absentismoa murrizteko programa	Eskola-absentismo handiko eremuetan babesgabetasun-egoerak prebenitzeko proiektu pilotua. Helburuak eta egin beharreko urratsak zehaztea	Proiektua abian jartzea	Egin beharreko zereginak - Adingabeen babesgabetasun-egoerak monitorizatzea: Babesgabetasun-egoerak antzemateko sistemak hobetzea. - Esku hartzeko eta prebenitzeko neurriak antolatzea. - Inplikatutako erakundeen arteko etengabeko elkarrizketa (udalerrietako/mankomunitateko oinarrizko gizarte-zerbitzuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzua, Hezkuntza (Osabide Hezkuntzarako Partzuergoa)

A) EUSKO JAURLARITZA

TEKNOLOGIAKO ETA BERRIKUNTZAKO SAILBURUORDETZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK4.1	5G hedapen-proiektuaren diseinua, plangintza eta gauzatzearen jarraipena	Lizitatua, adjudikatua eta 50.000 euroko balioa duten lanak hasita, bideragarritasun-azterketa bat egiteko eta 5G hedapena abian jartzeko.	Diseinua eta plangintza amaitzea	
EK4.2	Erakundeentzako dirulaguntza programa “5G erabilera-kasuetarako” Telekomunikazio-operadoreek 5G sareak hedatu eta behar diren azpiegiturak eraiki ahal izateko dirulaguntzak. Enkarterriko erakundeentzako dirulaguntza 5G erabilera-kasuetarako (eskarirako laguntzak)	Hainbat operadorerekin harremanetan jartzea, proiektuan duten inplikazioa baloratzeko. Azterketa-fasea. Balizko erabilera-kasuak aztertzen ari dira, jarduketaren efizientzia aztertzeko. Azterketa-fasea.	**“Administrazio publikoentzako droneen hegaldi-zerbitzua”** (URA, mendietako larrialdi-zerbitzua, trafikoa...) garatzea, eta Enkarterriko enpresa eta biztanleei teknologia horren erabilera erraztea.	Inbertsioan parte hartzeko eta azpiegituraz arduratzeko interesa duten operadoreak aurkitzeko zailtasunak

Proiektu eragilearen aurrerapenaren deskribapena
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

B) BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

BFA. AZPIEGITUREN ZUZENDARITZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK4.3	Eremu zuriak, non BFAk jarduten duen	Jarduketak amaitu dira 276 ataritan (239 etxebizitza). Xede-eremuen % 35 amaituta daude	709 xede-atariak (664 etxebizitza) 2022an osatzeko aurreikuspena	8 xede-udalerri dira: Alonsotegi, Artzentales, Galdames, Gueñes, Karrantza Harana, Lanestosa, Sopuerta eta Zalla 709 ataritan (664 etxebizitza) jardutea aurreikusten da

Agente laguntzaileak: EJ (Industria-berrikuntza), SPRI, BFA…

Proiektu eragilearen aurrerapenaren deskribapena
EUSKO JAURLARITZA ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Proiektuaren egoera 2021eko ekitaldiaren itxieran

Proiektu honek bi jarduketa aurreikusten ditu beste horrenbeste udalerritan. Zehazki, honako hauek identifikatu dira:

1.- Elkartegi bat garatzea Zallan

2.- Gueñesen eraikin bat erostea eta birgaitzea, bioekonomia-poloaren inguruan sortzen diren enpresentzat.

2021eko ekitaldiaren itxieran, Elkartegia eraikitzeko beharrezko lurzatietako bat erosi da, eta beste bi lurzati erosteko daude oraindik.

2022ko ekintzen aurreikuspena:

Jarduketa bakoitzean aurreikusitako ekintzak honako hauek dira:

1.- Elkartegia: gainerako lurzorua eskuratzea eta eraikuntza-proiektua idazteko lizitazioa abian jartzea, behin eginda, azpiegitura hori eraikitzeko obrak lizitatu ahal izateko.

2.- Güeñesko eraikina: 2022an eskuratu nahi da, eta, ondoren, birgaitze-proiektua idatzi, obrak geroago egin ahal izateko.

Hasierako aurrerapenak. Planean jasotako proiektuaren kontzeptualizazioaren garapena

A) EUSKO JAURLARITZA

INDUSTRIA SAILBURUORDETZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK5.1	Zallako Longar industrialdean lurzatia erostea eta Elkartegia kokatzea	Negoziazioak egitea eta lurzorua erostea. SPRILURek 400.000 euro inbertitu ditu lurzatia erosteko	Eraikiko den Elkartegiaren eredua definitzea.	Montealegre (Alonsotegi) eta Orbijana (Gueñes) erostea ezetsi da, garapen horiek gauzatzeko konplexutasun handia dagoelako. Zallan lurzorua erosi da Elkartegi bat eraikitzeko
EK5.2	Pabiloi hutsak edo beste alternatiba batzuk erostea	Bioekonomia-poloa bultzatzeko pabiloi posibleak erosteko kontaktuak	Negoziatzen jarraitzea eta erosketa-akordioak ixtea	

B) BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

AZPIEGITURAK ETA EKONOMIA SUSTAPENA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK5.3	Elkartegi bat eraikitzea Zallan eta lurzatia	Elkartegiaren ereduaren dimentsioa definitzea. Azpiegurak enpresak 400.000 euro inbertitu ditu lurzatia erosteko	Elkartegiaren eredua definitzea, pleguak egitea, lizitazioa, adjudikazioa eta obren hasiera.	Zallan lurzorua erosi da Elkartegi bat eraikitzeko

Proiektu eragilearen aurrerapenaren deskribapena
EUSKO JAURLARITZA

Proiektu eragilearen aurrerapenaren deskribapena

- 250.000 euroko inbertsioa, Enkarterrin bioekonomia sustatzeko proposatutako proiektuen bideragarritasuna aztertzeko eta proba pilotuak egiteko; egokiak izan dira. Aurreikuspenen arabera, 2.750.000 euro inbertituko dira 2022an eta 2023an (ehun-fabrika, zuraren zelulosatik abiatuta, eta ardi latxaren artilea aprobetxatzea).
- Basque Design Centerrekin lortu beharreko sinergien aurretiazko azterketa; proiektu hori sustatu eta sendotu egin behar da.
- Erakundeen jarraipena eta bultzada egiteko talde gidaria eratzea.
- Hiru lantalde osatzea, geratzen den ekitaldiko lan-plana garatzen hasteko eta 2022rako prestatzeko. Talde hauek eratu dira:

INDUSTRIA-PROIEKTUAK: Alkateak, sailburuordetza eta mankomunitatea. Hiru proiektu lantzen ari dira:

Zuraren zelulosatik abiatuta lortutako ehunen instalazioa.

Ardi latxaren artiletik eratorritako produktuak sortzeko enpresa.

Basogintza-sektorerako eta balio handiko beste sektore batzuetarako instalazioak sortzeko ekoizpen-enpresa.

EKINTZAILETZA/PRESTAKUNTZA: San Viator, Behargintza Enkartur, ADR Enkarterrialde, sailburuordetza eta mankomunitatea.

Bioekonomian ekintzailetza-ekimen bat abian jartzea.

San Viatorren prestakuntza abian jartzea (baso-kudeaketa eta enbriogenesi-laborategiak).

Prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak ADRtik

BASQUE DESING CENTER: Enkartur, sailburuordetza eta mankomunitatea.

Bioekonomia materialen eta diseinuaren bidez dinamizatzeko palanka

Agente laguntzaileak: EJ Nekazaritza/HAZI, BFA (Ekonomia Sustapena), enpresak...

Proiektu eragilearen aurrerapenaren deskribapena

B) BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- ✓ BFAko Ekonomia Sustatzeko Saila Enkarterrin bioekonomia-poloa bultzatzeari lotutako zuzendaritza batzordean sartu da.
- ✓ Basque Desing Center bioekonomia dinamizatzeko palanka gisa bultzatzeko konpromisoa dago, eta 150.000 euro eman dira 2021ean ekonomia zirkularrari eta bioekonomiari lotutako ekipamendua erosteko.

EKONOMIA SUSTAPENEKO ZUZENDARITZA		EGINDAKO JARDUKETAK 2021	EGIN BEHARREKO JARDUKETAK 2022	BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
EK6. 3	Basque Desing Center, azelerazio programa bat aktibatzea, proiektuak inkubatzea	BDC ekipamenduz hornitzea		Sustapen ekonomikoak 150.000 euro jarri ditu ekipamendurako. Ekonomia Sustatzeko Saila zuzendaritza batzordean sartu da

Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren proiektu eragileak

PROIEKTU ERAGILEAK			OGASUNAREN AURREKONTUA		
			ESLEITUA 2021-2023	BETEARAZIA 2021	% betearazia
EK1	BARNEKO ETA KANPOKO MUGIKORTASUNA HOBETZEA	EJ	5.000.000	0*	% 0
		BFA	22.170.296	1.894.470	% 8,5
		GUZTIRA	27.170.296	1.894.470	% 7
EK2	AKTIBO TURISTIKO ETA KULTURALEN INTERKONEXIOA	EJ	4.000.000	1.494.571	% 37,4
		BFA	3.830.982	863.460	% 23
		GUZTIRA	7.830.982	2.808.031	% 36
EK3	HEZKUNTZA- ETA LAN-MUNDUAN INTEGRATZEA: LH GARATZEA ETA LANERATZEA	EJ	3.000.000	2.125.000	% 71
		BFA	415.000	0	% 0
		GUZTIRA	3.415.000	2.125.000	% 62
EK4	LANDA-EREMUAK DIGITALIZATZEKO BANDA ZABALA HEDATZEA	EJ	4.000.000	50.000	% 1,3
		BFA	1.300.000	1.026.357	% 0
		GUZTIRA	5.300.000	0	% 0
EK5	ENPRESA-GUNEAK SORTZEA	EJ	5.000.000	2.000.000	% 44
		BFA	5.000.000	600.000	% 12
		GUZTIRA	10.000.000	1.200.000	% 12
EK6	BIOEKONOMIA SUSTATZEA	EJ	3.000.000	250.000	% 8,3
		BFA	150.000	150.000	% 100
		GUZTIRA	3.150.000	300.000	% 10
EK EPE GUZTIRA			**57.866.278**	**10.453.858**	**% 18,1**
EUSKO JAURLARITZA, GUZTIRA			**24.000.000**	**5.919.571**	**% 24,6**
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA, GUZTIRA			**32.866.278**	**4.534.287**	**% 13,8**

Proiektu eragile eta erakunde bakoitzeko 2021. urteko aurrekontu betearazpen absolutua eta portzentajezkoa
*2021ean betearazitako aurrekontua 1.282.200 €-koa izan da, sailaren aurrekontu arruntaren kargura. Hori dela eta, ez daude kontabilizatuta LJE funtsen betearazpenean, Ogasun Sailaren arabera.

Eusko Jaurlaritzaren proiektu eragileak

BETEARAZITAKO AURREKONTUA, ESLEITUTAKO GUZTIZKOAREKIN ETA 2021EAN AURREIKUSITAKOAREKIN ALDERATUTA

PROIEKTU ERAGILEAK		EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUA			
		GUZTIRA 2021-2023	AURREIKUSIA 2021	BETEARAZIA 2021	% BETEARAZIA/ AURREIKUSIA 21
EK1	TRENBIDE-AZPIEGITURA ETA -ZERBITZUA HOBETZEA	5.000.000 €	1.430.000 €	0 €	% 0,0
EK2	AKTIBO TURISTIKO ETA KULTURALEN INTERKONEXIOA	4.000.000 €	2.029.000 €	1.494.571,0 €	% 73,7
EK3	HEZKUNTZA- ETA LAN-MUNDUAN INTEGRATZEA: LH GARATZEA ETA LANERATZEA	3.000.000 €	2.125.000 €	2.125.000 €	% 100,0
EK4	LANDA-EREMUAK DIGITALIZATZEKO BANDA ZABALA HEDATZEA	4.000.000 €	50.000 €	50.000 €	% 100,0
EK5	ENPRESA-GUNEAK SORTZEA	5.000.000 €	2.000.000 €	2.000.000 €	% 100,0
EK6	BIOEKONOMIA SUSTATZEA	3.000.000 €	350.000 €	350.000 €	% 100,0
ENKARTERRI, GUZTIRA		**24.000.000 €**	**7.884.000 €**	**5.919.571 €**	**% 75,1**

Proiektu eragile bakoitzeko 2021. urteko aurrekontu betearazpen absolutua eta portzentajezkoa

Bizkaiko Foru Aldundiaren proiektu eragileak

BETEARAZITAKO AURREKONTUA, ESLEITUTAKO GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA

PROIEKTU ERAGILEAK		AURREKONTUA		
		ESLEITUA 2021-2023	BETEARAZIA 2021	% BETEARAZIA
EK1	TRENBIDE-AZPIEGITURA ETA -ZERBITZUA HOBETZEA	22.170.296	1.894.470	% 8,5
EK2	AKTIBO TURISTIKO ETA KULTURALEN INTERKONEXIOA	3.830.982	863.460	% 23
EK3	HEZKUNTZA- ETA LAN-MUNDUAN INTEGRATZEA: LH GARATZEA ETA LANERATZEA	415.000	0	% 0
EK4	LANDA-EREMUAK DIGITALIZATZEKO BANDA ZABALA HEDATZEA	1.300.000	1.026.357	% 79
EK5	ENPRESA-GUNEAK SORTZEA	5.000.000	600.000	% 12
EK6	BIOEKONOMIA SUSTATZEA	150.000	150.000	% 100
ENKARTERRI, GUZTIRA		**32.866.278**	**4.534.287**	**% 13,8**

Proiektu eragile bakoitzeko 2021. urteko aurrekontu betearazpen absolutua eta portzentajezkoa

Ondorioak

- Planaren hedapena: Eusko Jaurlaritzak, BFAk eta eskualdeko udal bakoitzak EPEa hedatu dute beren webguneen, komunikabideen eta proiektu eragiletako arduradunek parte hartu duten foro eta jardunaldien bidez.
- Eusko Jaurlaritzak proiektu horiek garatzen lagundu du, eta 24 milioi euroko ekarpen aparta egin du, 2021-2023 aldian betearazteko. Inbertsio hori modu orekatuan banatu du proiektu eragileen artean.
- BFAk proiektu horiek garatzen lagundu du, eta 32,8 milioi euro jarri ditu, 2020-2025 aldian betearazteko. Nabarmentzekoa da 22 milioi gorde dituela EK1 proiektu eragileko BI-630 errepidearen 2 tarte hobetzeko eta handitzeko.
- Talde eragileak EPEa baliozkotu zuenetik 2021eko abenduaren 31ra arte igaro diren sei hilabeteetan aurrerapen esanguratsuak egin dira garapen kualitatibo eta kuantitatiboan:
    - Sail arduradunek, gehienbat, funtsak lizitatzeko, adjudikatzeko eta/edo beste erakunde batzuei transferitzeko prozedurei ekin diete, proiektu eragileetan definitutako ekintzak gauzatzea haiekin adostu den kasuetan. Era berean, jarduketa-ildo horietako asko gauzatze-prozesuan daude dagoeneko.
    - Oso positiboki baloratu da EK EPEaren aurrekontuaren egikaritze-maila, hura indarrean egon den 6 hilabete horietan; izan ere, Berpiztu programaren aparteko baliabideen % 24,7 eta BFAren baliabideen % 13,8 gauzatu da 2021-2023 aldirako.
    - Eusko Jaurlaritzaren jarduketa-planean 2021ean gauzatu beharreko aurreikuspenen arabera, aurrekontuaren aurrerapen-maila % 75,1ekoa da.

Ondorioak

- Proiektu eragileen banakako balorazioa eginez, “EK2. Aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa” eta “EK3. Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: LH garatzea eta laneratzea” proiektuen aurrerapen kualitatibo eta kuantitatiboaren maila nabarmentzen da, baita aurreikuspenen gainetik ere.
- Proiektu estrategikoen garrantzia dela eta, inplikatutako erakundeek (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Enkarterriko udalak) konpromisoa hartu dute proiektu estrategikoen garapena bultzatzeko eta beren eskumenen esparruan definitutako ekintzak abiarazteko izapideak arintzeko.